

MOEBIUS


6. Bezeroekin harremanak:

-Merkatu-segmentu espezifikoarekiko gure enpresak sortuko duen harreman mota.

- Gure bezeroekin tratu azkarra, eraginkorra eta segurua izango dugu. Azkarra izango da, web-orrialde edo emailaren bitartez harremanetan jarri gaitzkelako eta telefonoz deitu dezaketelako.



- Bezeroarentzako arreta pertsonalizatua izango da, haiekin harreman ona eta lagunkoia edukitzen sahiatuko gara, erantzungailu automatikorik erabili gabe.



- Eraginkorra izango da, konprometitzen garelako ordu batean eskaerak erantzuten eta produktua ahal den denbora gutxienean ailegatzeaz arduratuko gara.



- Segurua izango da produktua iristen ez bada, dirua bueltatuko diegulako bezeroei edo beste kandadu bat bidaliko diegulako. Produktuak ondo funtzionatzen ez badu, berdina egingo da.

